

# Ispilu kirtenduna

Nola ikus dezakezu etxe-kantoi baten beste aldekoa?

## Materialak

- Erregela bat
  - Zinta itsasgarria
  - Poltsikoko ispilu bat
- Ate baten aurrean egitekoa



## Zer egin

1. Jarri erregela mahai gainean.
2. Itsatsi poltsikoko ispiluaren goiko eta beheko aldeak erregelaren mutur batera. Ez estali ispiluaren gainazal islatzailea.
3. Eman buelta ispiluari, eta jarri itsasgarria atzean, bermatuago izateko.
4. Jar zaitetz ate baten alde batean, eta erabili erregela ispilua ate irekiaren beste aldera eramateko. Mugitu ispilua eremu horretako objektuak ikusteko.

## Zer gertatzen da?

Periskopio arrunt bat egin duzu, etxe-kantoi baten beste aldekoa ikusteko aukera ematen duen tresna. Argiak ispilua jotzen duen angelu berarekin islatzen da. Ispilua eskuineko angeluan jarri baduzu, atetik datozen argi-izpiak islatu dituzu zure begietan, eta, hala, beste aldean dagoena ikusi ahal izan duzu. Urpekoek periskopioak erabiltzen dituzte ozeanoen gainazalekoa ikusteko.

